

ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko
ikastetari buruzko dokumentuak

Gipuzkoako pertsonen eta enpresen parte- hartzea prestakuntza bonifikatuan

60. dokumentua

2018 ekaina

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Orekako Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Promoción
Económica, Medio Rural
y Equilibrio Territorial

AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	3
2.	Gipuzkoako enpresetako prestakuntza.....	4
2.1.	Enpresek eskainitako prestakuntzan parte hartzea	4
2.2.	Prestakuntza bonifikatua eskaintzen duten enpresak	7
3.	Prestakuntzan parte hartzen duten pertsonak (bonifikatua).	
	EAE	8
3.1.	EAEko prestakuntza bonifikatuko parte hartzea	8
3.2.	Enpresen tamaina eta eskainitako prestakuntza	12
3.3.	Enpresaren jarduera-sektorearen araberako prestakuntza	16
3.4.	Eskainitako prestakuntza tipologia eta ezarritako baliabideak	17
4.	Posizio konparatiboa: erreferentziazko adierazle batzuk	18
4.1.	Autonomia erkidegokoekiko posizio konparatiboa	18

1. Aurkezpena

Txosten honek prestakuntza bonifikatuari buruzko informazioa aztertzen du, enpresek bertan lan egiten duten pertsonentzat programatzen dituzten prestakuntza-jarduera guztiak barneratzen dira, eta Gizarte Segurantzaren kuotako¹ hobarien bidez finantzatzen direnak. Enpresek eta pertsonak planteatutako prestakuntza beharrei erantzuten die eta enpresetan eskaini oi da².

Fundaek ("Fundación Estatal para la Formación en el Empleo") honako informazioa eskaintzen du, bere azterketa ondorengo eran egiten dena:

- Gipuzkoarentzat eskuragarri dagoen informazioa aurkezten du, parte hartzen duten pertsona eta enpresei dagokiena (2. Kapitulua).
- Parte-hartzen duten pertsona eta enpresen ezaugarriak aztertzen ditu. Eskuragarri dagoen informazioa Erkidego autonomikoka banatzen da, eta beraz Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) ardatzen da, non lortutako emaitzak Gipuzkoako egoeraren adierazgarri diren (3. kapitulua).
- EAEk gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz duen posizioarekin amaitzen du, erreferentziazkoak diren adierazle jakin batzuei dagokienez.

Informazioaren zati nabarmen bat 2017ra arte eguneratuta dago eta eskuragarri dago entitatearen webean, "Prestakuntza Enpresetan" ("Formación en las Empresas") txostenetan biltzen denarekin osatzen dena, urtero editatzen direnak eta bertsio berriena 2016ari dagokiona (informazioa probintzia mailan bereizten da).

1 Formakuntza hau batez ere lanbide-heziketa kuotaren bitartez finantzatzen da, enpresek eta langileek ordaintzen diotena Gizarte-Segurantzari (Kotizazio-oinarriaren gaineko %0,7 gertakizun komunengatikoa non enpresek %0,6 ematen duten eta gainerako %0,1a langileek). Hauei Europako Gizarte Funtseko baliabide batzuk gehitzen zaizkie eta baita Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Aurrekontuen bitartez Estatuak egiten dituen ekarpenak.

2 Hala ere, prestakuntza ikastaroetako asistentzia ere barneratzen da langileen aldetik tituluaren edo egiaztapen ofizialaren lorpenerako, enpresak pertsona langile hauen soldata-kostuengatik hobaria lortuz bere lanpostutik aldentzen diren denboran zehar.


2. Gipuzkoako enpresetako prestakuntza

2.1. Enpresek eskaintako prestakuntzan parte hartzea

64.188 pertsonak Gipuzkoako enpresetan garatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzen dute

Gipuzkoan 64.188 pertsonak parte hartzen duten formakuntza bonifikatua bezala garatutako prestakuntza-jardueretan (2016. urteko datuaren arabera, azkeneko datu eskuragarria). Parte-hartzaile zifra hau 2015 urtekoaren ia berbera da eta egonkorra da aurreko urtearekin konparatuz (64.513). Bestalde, nabarmendu behar da bigarren urtea dela jarraian hirurogei mila pertsona parte-hartzaileen muga gainditzen dela, eta gainera, 2012az geroztik hazkunde profil bat ematen da.

1. Grafikoa Prestakuntza bonifikatuko jardueretan parte hartzen duten pertsonak, 2012-2016. Gipuzkoa




Iturria: Fundae

2016. urtean, Gipuzkoak EAEko formakuntza bonifikatuko parte-hartzaileen %30,7 eman zuen. Proporzio hau nahiko egonkor mantentzen da azken urteetan, 2014 urtera arte zertxobait altuagoa mantendu bazen ere, %32a gainditzen baitzuen.

2. Grafikoa Gipuzkoako parte-hartzaile ratioa EAErekin alderatuz

%



Iturria: Fundae

Gipuzkoako eta EAEko parte-hartzaileen bilakaerak 2011 eta 2016 artean erakusten du bi eremuotan aldagaia zertxobait gorabeheratsua dela eta 2015ean da gehikuntza garrantzitsua erregistratzen den momentua (%14,7 eta %14,3 Gipuzkoan eta EAEn, hurrenez hurren).

Batez besteko datuek, 2011-2013 eta 2014-2016 hirurtekoetarako, hobekuntza erakusten dute okupatutako pertsonen parte-hartzean prestakuntza bonifikatuan. Horrela, jarduera berreskuratzen den heinean, Gipuzkoak 56.212 parte hartzaile izatetik 61.645 izatera pasatzen da euren enpresatik emandako prestakuntza-programetan, %9,7ko gehikuntzarekin. Bilakaera hau EAEkoarenarekin partekatua da.

1. Tabla Prestakuntza jerdueretako pertsona parte-hartzaileen bilakaera, 2011-2016. Gipuzkoa eta EAE

	Gipuzkoa		EAE	
	Parte-hartzaileak	(%)	Parte-hartzaileak	(%)
2011	52.175	15,4	166.599	11,2
2012	54.991	5,4	174.725	4,9
2013	57.432	4,4	178.019	1,9
2014	56.233	-2,1	174.343	-2,1
2015	64.513	14,7	196.968	13,0
2016	64.188	-0,5	206.049	4,6
2011-2013 (batez beste)	56.212	-	176.372	-
2014-2016 (batez beste)	61.645	9,7	192.453	9,1

* Kontuan hartu behar da pertsona langileak behin baino gehiagotan parte har dezakeela eta parte-hartze bakoitzak parte-hartzaile bat bezala kontatzen duela.

Prestakuntza bonifikatuko parte-hartze ratioak handitu dira guztizko enpleguaren eta soldatapeko enpleguaren gainerik

Zein da prestakuntza bonifikatuko parte-hartzearen adierazgarritasun maila? Parte-hartze honen garrantzia nabarmentzeko bolumenaren ratioak kalkulatu dira, formakuntza bonifikatuko parte-hartzea Lurraldeko soldatapeko enpleguarekin alderatuz. Horrela,

- Gutxienez, Gipuzkoako soldatapeko pertsonen laurden batek modu erregularrean parte hartzen du bere enpresak eskainitako formakuntza bonifikatuan.
- Parte hartze hau 2012ko %25,1 eta 2016ko %28,8 artean kokatzen da, lortutako balio handiena izanik.
- Ikusten da, halaber, parte-hartze ratioa enplegua baino neurri handiago batean hazten dela, hori dela eta parte-hartze ratioa hazkorra da: hau da, jardueraren (eta enpleguaren) hobekuntzarekin bonifikatutako prestakuntza-jardueren egiteak gora egiten du.

2. Tabla Gipuzkoan enplegatutako pertsonen guztizkoarekin loturiko parte-hartzaileak, 2012-2016. Gipuzkoa

	Parte-hartze totala ¹	Soldatapeko pertsonak ²	
		Kopurua	%
2012	54.991	219.478	25,1
2013	57.432	211.427	27,2
2014	56.233	212.813	26,4
2015	64.513	226.245	28,5
2016	64.188	223.053	28,8

1. Prestakuntza-ekintza bakoitzeko parte-hartzaileak;

2. Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonak
Iturria: Fundae, Eustat eta Gizarte Segurantzak


2.2. Prestakuntza bonifikatua eskaintzen duten enpresak

Prestakuntza-jarduerak eskaintzen dituzten enpresak arinki murrizten dira

Prestakuntza bonifikatuan parte hartzen duten enpresak murriztu egin dira Gipuzkoan. 2016an 6.015 enpresa izan ziren bere langileei formakuntza eman zietenak, 2015ean baino %13 gutxiago, eta 2014az geroztik beherakorra izateko tendentzia hartua dauka eta zazpi mila enpresako mugatik behera mantentzen da.

3. Grafikoa Formakuntza jarduerak ematen dituzten enpresak, 2012-2016. Gipuzkoa

Pertsona kopurua



Iturria: Fundae


3. Prestakuntzan parte hartzen duten pertsonak (bonifikatua). EAE

3.1. EAEko prestakuntza bonifikatuko parte hartzea³

200.000 pertsona baino gehiagok parte-hartzen dute EAEko prestakuntza bonifikatuan

EAEn euren enpresetan prestakuntza bonifikatuko jardueretan parte-hartu duten pertsonak 209.071 dira, 2014tik aurrera ezarri den hobekuntza joerarekin jarraituz. Izan ere, 2012 eta 2014 urteen artean, urteko batez besteko parte hartzea 175.296 parte-hartzailekoa da, hurrengo hirurtekoan 204.029 izanik (2016tik 2017ra), %16,1eko hazkundearekin.

4. Grafikoa Parte-hartzaileak prestakuntza bonifikatuko jardueretan, 2012-2017. EAE



Iturria: Fundae


³ Atal honetarako eta hurrengoetarako eskuragarri dagoen informazioa EAEri buruzkoa da, baina adierazgarria da gipuzkoar errealitatearekiko.

EAEko soldatapeko hiru pertsonatik ia batek formakuntza bonifikatuko prestakuntza-jardueraren batean parte hartzen du

Ondorengo grafikoak urte bakoitzean prestakuntza bonifikatuko parte-hartzaileen bolumenaren eta soldatapeko pertsonen arteko ratioa erakusten du, Gizarte Segurantzaren afiliazio-aldagaiaren arabera jaso (itxiera datua urte bakoitzeko abenduan).

Eredu bonifikatuaren arabera garatutako prestakuntza jardueren irismenaren adierazle argigarri bat lortzea da helburua. Gauzak horrela, ratio hau %28,4koa da, 2012tik hazten doan ehunekoa eta azken hiru urte hauetan %28aren inguruan sendotu dena.

5. Grafikoa EAEko formakuntza bonifikatuko parte hartzaileen ratioa soldatapeko enpleguari dagokionean



Iturria: Fundae

Gizonezkoek pisu handiagoa dute emakumeek baino, parekatzeko joera izan arren

2017ra arte prestakuntza bonifikatuko parte-hartzaileen erdia baino gehiago gizonezkoak dira (%56,9), emakumezkoena baino ehuneko 13,9 puntu gehiago. Banaketa hau nahiko egonkorra da, progresiboki, generoaren arabera banaketa parekoago baterako joera duelarik.

Hala ere, kontuan hartu behar da bateratze honek aurrera jarraituko duela gizonek eta emakumeek antzeko lan-espazioetan parte hartzen duten neurrian: hau da, talde maskulinoaren presentzia handiagoa da industrian eta baita tamaina handiagoko enpresetan ere, talde femeninoarekin alderatuz (zerbitzuen sektorea, tamaina txikiagoko enpresak). Honek eragiten du prestakuntza bonifikatuko parte-hartzea

talde maskulinoaren alde makurtzea. Hala ere, parte-hartze handiagoa edo txikiagoa ez da generoaren araberakoa, lantokiaren araberakoa baizik. Hau da, hauetatik ea aipaturiko prestakuntza sustatzen den neurri handiago edo txikiago batean.

3. Tabla Prestakuntza jardueretako parte-hartzaileak eta generoa, EAEn, 2012-2017

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Parte-hartzaileak (guztira)	174.725	178.019	174.343	196.968	206.049	209.071
Gizonezkoak	100.572	103.275	99.079	111.764	116.222	119.063
Emakumezkoak	74.153	74.744	75.264	85.204	89.827	90.008
Banaketa (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Gizonak	57,6	58,0	56,8	56,7	56,4	56,9
Emakumezkoak	42,4	42,0	43,2	43,3	43,6	43,1

Iturria: Fundae

35-55 urte bitarteko pertsonak prestatzen direnen gehiengoa dira

Formakuntza bonifikatuko adin taldearen araberako pertsona parte-hartzaileen banaketak, adierazten du,

- Talde ugariena 36-45 urte bitarte dituenak dira eta 78.116 parte-hartzaile dira, ibilbide hazkor argiarekin. Parte-hartzaileen heren bat baino gehiago suposatzen dute, %36,1 (2012) eta %38,1 (2015) tartean ibiltzen delarik. Honen azken bi urteetako pisua baxuagoa da (%37,8 eta %37,4), eta arinki beherakorra, 2015. urtea izan zelarik bere pisu gorenaren lortu zuen urtea.
- Bigarren talderik handiena 46-55 urte bitartekoena da, 56.673 parte-hartzaileekin. Guztizkoaren laurden bat baino gehiago dira eta ibilbide argi eta garbi hazkorrekin %23,1etik (2012) %27,1era (2017).
- Hirugarren taldean 26-35 urte bitartekoak aurkitzen dira, talde beherakorra da hau 2012-2017 urteen artean, 51.866 pertsona izatetik 46.780 pertsona izatera pasa dira, euren ekarpena murriztuz (%29,7tik %22,4ra).
- Talde-adinduenak (55 urte eta gehiago) parte-hartzaileen guztizkoaren %8-9 hartzen du, joera hazkor bat erakusten duelarik (zenbatekoan eta ekarpen ehunekoan). Kontuan hartu behar da talde hau dagoeneko 16-25 urtekoen bikoitza dela, bolumen eta ekarpen geratu bat daukan taldea.

Kontuan hartu beharrekoa: adinaren arabera formakuntza bonifikatuko parte hartzeak soldatapeko enplegua duten pertsonen zahartzea erakusten du EAEn, adin handiagoko taldearen pisu hazkorrarekin (45 urte eta gehiago).

4. Tabla Parte-hartzaileak prestakuntza jardueretan eta adin-taldeak EAEn. 2012-2017

Parte-hartzaileen kopurua/ Parte hartzaileen % gutizkotik

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira (adinaren arabera)	174.714	178.014	174.332	196.953	206.042	209.053
16 eta 25 urte bitartean	7.194	6.298	5.940	6.812	8.346	8.782
26 eta 35 urte bitartean	51.866	48.460	44.190	47.126	48.302	46.780
36 eta 45 urte bitartean	63.112	66.045	65.679	75.025	77.906	78.116
46 eta 55 urte bitartean	40.295	43.295	44.228	50.299	53.411	56.673
55 urte baino gehiago	12.247	13.916	14.295	17.691	18.077	18.702
Banaketa (%)¹	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
16 eta 25 urte bitartean	4,1	3,5	3,4	3,5	4,1	4,2
26 eta 35 urte bitartean	29,7	27,2	25,3	23,9	23,4	22,4
36 eta 45 urte bitartean	36,1	37,1	37,7	38,1	37,8	37,4
46 eta 55 urte bitartean	23,1	24,3	25,4	25,5	25,9	27,1
55 urte baino gehiago	7,0	7,8	8,2	9,0	8,8	8,9

1. Ez da "gainontzeko egoerak" barneratzen, honen eragina % 0,01 baino txikiagoa baita
Iturria: Fundae

3.2. Enpresen tamaina eta eskainitako prestakuntza

Formakuntza bonifikatuan parte hartzen duten enpresen gehiengoa tamaina txikiakoa da

Ondorengo taulan, formakuntza bonifikatuan parte hartzen duten enpresen banaketa adierazten da, euren bere tamaina-segmentuaren arabera (enplegua). Lortutako emaitzak adierazten du, hasiera batean, enpresen zenbatekoa gutxitzen dela: 2012 eta 2014 bitartean, urteroko batez bestekoa, 22.201 enpresa dira, 2015-2017 hirurtekoan 18.108raino murrizten direlarik.

Halaber, aipaturiko prestakuntzan parte hartzen duten enpresen bi heren baino gehiagok 1-9 langile bitartean ditu, periodoan zehar joera beherakor batekin. Beste aldetik, ia laurden bat 10-49 langile bitartean dituzten enpresek osatzen dute eta gainontzekoa dimentsio handiagoko enpresek osatzen dute (50 langile edo gehiago), bi kasuetan argi eta garbi pisu hazkor batekin.

5. Tabla Formakuntza bonifikatuetako enpresen parte hartzea, neurriaren arabera (enplegu segmentua), 2012-2017. EAE

Enpresa kopurua

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Enpresak guztira*	22.196	22.072	22.336	19.805	17.465	17.054
1etik 9ra	15.771	15.653	16.007	13.695	11.641	11.173
10etik 49ra	5.027	5.062	4.999	4.785	4.461	4505
49etik 249ra	1.182	1.159	1.140	1.139	1.167	1172
249 baino gehiago	204	189	180	176	187	188
Banaketa (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
1etik 9ra	71,1	70,9	71,7	69,1	66,7	65,5
10etik 49ra	22,6	22,9	22,4	24,2	25,5	26,4
49etik 249ra	5,3	5,3	5,1	5,8	6,7	6,9
249 baino gehiago	0,9	0,9	0,8	0,9	1,1	1,1

* Ez da "gainontzeko egoerak" barneratzen, honen eragina % 0,01 baino txikiagoa baita
Iturria: Fundae

Hala ere, prestatzen diren pertsonen bi herenek, gutxienez 100 enplegu dituzten enpresetan egiten dute

Ondorengo taulak prestakuntza bonifikatuan parte hartzen duten enpresen kopurua hartzen du, kontuan lana egiten duten enpresaren segmentuaren arabera. Emaiza hauek zera erakusten dute:

- Parte-hartzen duten pertsonak dimentsio gutxiagoko enpresetan, zehazki 1 eta 9 enplegu bitartekoetan, progresiboki murrizten joan dira, 23.156 izatetik 16.911 izatera pasatzen dena, %20,1 sei urteetan.
- Gainerako tamainako enpresetan parte-hartzea hazkorra dela esan daiteke. Hala ere gehikuntza hau pertsona parte-hartzaileen artean %4koa da soilik, 10-49 enplegu bitartean dituzten enpresek eraginda, eta gainerako tamainakoetan %20aren gainetik hazten da.
- Beraz, formakuntza bonifikatuetako pertsona parte-hartzaileen kopuruaren handiagotzea aipaturiko parte-hartzearen gehikuntzaren ondorio da nolabaiteko dimentsioa duten enpresen artean.

6. Taula Prestakuntzan parte-hartzea, enpresen tamainaren arabera (enplegu segmentua), 2012-2017. EAE

Parte hartzaileen % guztizkotik


	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira (enplegu segmentua)*	174.725	178.019	174.343	196.968	206.049	209.071
1 eta 9 enplegu bitartean	23.156	22.960	23.288	21.146	17.415	16.911
10 eta 49 enplegu bitartean	36.014	37.779	38.032	38.510	37.017	40.777
50 eta 99 enplegu bitartean	18.311	18.527	18.799	21.322	22.609	24.403
100 eta 249 enplegu bitartean	22.247	22.841	24.597	26.009	29.489	31.226
250 eta 499 enplegu bitartean	13.968	14.265	14.106	16.616	18.887	17.449
499 enplegu baino gehiagokoa	61.029	61.645	55.520	73.365	80.586	78.304

* Ez da "gainerako egoerak" barneratzen, honen eragina % 0,01 baino txikiagoa baita
Iturria: Fundae

Modu honetan, formakuntza bonifikatuan parte hartzen duten pertsonen bi heren gutxienez 100 enplegu edo gehiago dituzten euskal enpresetatik datoz. Taldearen %60,7 dira 2017an, 2012ari dagokionez ehuneko 5 puntuko gehikuntzarekin (%55,7).

Beste aldetik, 50 eta 99 enplegu bitarteko enpresetan errotutako pertsona parte-hartzaileak %11,7 hartzen dute, 2012tik hazten den proportzioa (%10,5). Aitzitik, dimentsio txikiagoko enpresetako taldeen parte-hartzaileetako kopuruko ekarpena (1 eta 9 enplegu bitartean eta 10 eta 49 enplegu bitartean) bi kasuetan beherakorra da eta % 8,1ean eta %19,5ean geratzen da, ehuneko 5,2 puntu eta 1,1 puntuko murrizketekin, 2012ri eta 2017ri dagokionez.

6. Grafikoa Parte hartzaileen banaketa, enpresako tamainaren arabera (enplegu segmentua), 2013-2017. EAE



Iturria: Fundae

Prestakuntza bonifikatuaren ezartze-ratioa gorakorra da enpresaren tamainaren arabera

Enpresetako prestakuntza bonifikatuko estaldura-tasa, bere tamainaren arabera neurtzen da (enplegu segmentua). Modu honetan, ratioak bere zenbakitzailean prestakuntzako parte-hartzaileak barneratzen ditu eta izendatzailean tamaina-segmentu bakoitzeko enpresei loturiko enplegua.

Lortutako emaitzek erakusten dute prestakuntza (bonifikatuko) jardueretan lortutako emaitzak gorakorrek direla enpresaren tamaina handiagoa den heinean. Horrela,

- 500 langile edo gehiago dituzten enpresetan, pertsonen %87k prestakuntza jardueretan parte hartzen du.

- Ekarpen hau heren baten inguruan kokatzen da 100-249 eta 250-499 pertsona dituzten enpresen artean, %28,9 eta %33,1 ratioekin hurrenez hurren.
- 10-49 eta 50-99 enplegu dituzten enpresetan prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenen ratioak %18,9 eta %24,8 dira hurrenez hurren.
- Azkenik, ehuneko hau %5,5era murrizten da dimentsio txikieneko segmentuan (1-9 enplegu artean).

7. Taula Prestakuntza parte-hartzearen eta enpresetan enplegatutako pertsonen arteko alderaketa, enpresaren tamainaren arabera (enplegu segmentua), 2017. EAE

	Parte-hartzaileak guztira	Langileak	Ratioa (%)
Total	209.071	874.241	23,9
1 - 9 enplegu artean	16.911	309.244	5,5
10 - 49 enplegu artean	40.777	216.126	18,9
50 - 99 enplegu artean	24.403	98.311	24,8
100 - 249 enplegu artean	31.226	107.916	28,9
250 - 499 enplegu artean	17.449	52.746	33,1
499 enplegu edo gehiago	78.304	89.898	87,1

Iturria: Fundae eta Eustat

3.3. Prestakuntza enpresaren jarduera-sektorearen arabera

Prestakuntzan parte-hartzea handitu egin da jarduera-sektore guztietan

2017an, prestakuntzan parte-hartzaile gehien eduki zuen jarduera sektorea zerbitzuena izan zen, 134.619 parte hartzaileekin, parte hartzaile guztien %64,4 suposatuz. Bigarren talde handiena industriari dagokiona izan zen, 61.109 pertsonekin, guztizkoaren %29,2 hartzen zuelarik. Proporzio hau antzeko mantendu da ikertutako urte guztietan zehar, aldaketa nabarmenik gabe.

8. Taula Prestakuntzan parte-hartzea, enpresaren jarduera sektorearen arabera, 2012-2017. EAE

Parte hartzaileen % guztizkotik

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Parte-hartzaileak, sektoreka	174.725	178.019	174.343	196.968	206.049	209.071
Industria	47.882	51.908	49.202	54.767	58.283	61.109
Zerbitzuak	111.803	113.487	113.838	131.782	137.401	134.619
Besteak (lehen, eraikun.)	15.040	12.624	11.303	10.419	10.365	13.343
Parte-hartzaileak, sektoreka	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Industria	27,4	29,2	28,2	27,8	28,3	29,2
Zerbitzuak	64,0	63,7	65,3	66,9	66,7	64,4
Besteak (lehen, eraikun.)	8,6	7,1	6,5	5,3	5,0	6,4

Iturria: Fundae

Azkenik, sektorearen araberako prestakuntza-jardueraren estaldura tasaren kalkuluak adierazten du industria-sektorean gutxienez langileen heren batek prestakuntza bonifikatuko jardueretan parte hartzen duela (%35). Proporzio hau, bosten batera murrizten da (%21,2 eta %21,1) zerbitzu-jardueretan eta gainerako sektoreetan (lehen sektorea eta eraikuntza), hurrenez hurren.

9. Taula Prestakuntzako parte hartzaileen eta enpresetan enplegatutako pertsonen arteko ratioa, enpresaren sektorearen arabera, 2017. EAE

	Parte hartzaile kop.	Enpresetako langileak	Ratioa (%)
Sektoreak (guztira)	209.071	874.241	23,9
Industria	61.109	175.648	34,8
Zerbitzuak	134.619	635.318	21,2
Gainerakoak (lehen eta eraikuntza)	13.343	63.275	21,1

Iturria: Fundae eta Eustat

3.4. Eskaintako prestakuntzaren tipologia eta ezarritako baliabideak

Eskaintako prestakuntza batez ere presentziala da

2017an eredu nagusia prestakuntza presentziala da (guztizkoaren %81,7), gainera urteak aurrera joan ahala indar handiagoa hartzen doa, tele-prestakuntzak jarraitua (%17,5 2017an). Aipatu behar da 2015ean urruneko prestakuntza eskaintzeari utzi zitzaiola, eta prestakuntza mistoaren presentzia murrizten doala.

10. Taula Prestakuntzan parte-hartzearen bilakaera, prestakuntzaren tipologiaren arabera, 2012-2017. EAE

Parte hartzaileen % guztizkotik

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Presentziala	67,3	67,5	67,2	70,1	81,1	81,7
Tele-prestakuntza	6,7	6,7	7,6	8,3	11,6	17,5
Mistoa	11,9	10,8	11,9	8,9	1,5	1,3
Urrunekoa	14,1	14,1	12,6	9,4	--	--

Iturria: Fundae

Enpresetako prestakuntzan erabilitako finantzaketa %6,7 murriztu zen 2016an

EAEk 2014 eta 2017 urteen artean 32,7 eta 28,1 miloi euro eduki zituen bideragarriak prestakuntza bonifikatuan erabiltzeko (Gizarte Segurantzaren kuoten proportzioan indarrean dauden kotizazio-sistema ezberdinek emandakoaren arabera). Hala ere, azkenean erabili den kreditua guztizkoaren % 64,5era iritsi zen soilik 2016an eta azken urtean murriztu den proportzio bat jarraituz. Hau da, EAEko enpresek margen finantzarioa dute euren prestakuntza bonifikatua handitzeko.

11. Taula Enpresei prestakuntzarako emandako kredituaren eta estaldura-ratioaren bilakaera, 2014-2017. EAE

	2014	2015	2016	2017
Emandako kreditua (miloi €)	32,7	30,0	28,0	28,1
Emandako kreditua, esleitutakoarekiko (%)	72,8	68,2	64,5	--

Iturria: Fundae

4. Posizio konparatiboa: erreferentziazko adierazle batzuk

4.1. Autonomia erkidegokoekiko posizio konparatiboa

EAEko prestakuntza bonifikatuko parte hartzaile bakoitzak 16,7 prestakuntza ordu jasotzen ditu, estatuko batez bestekoa baino gehiago (15,9)

Ondorengo grafikoak, autonomia erkidego bakoitzeko batez besteko prestakuntza orduak jasotzen ditu. EAEn parte hartzaile bakoitzak batez beste 16,7 prestakuntza-ordu jaso zituen enpresan, estatu mailako batez besteko zenbatekoa baino handiagoa (ehuneko +0,8 puntu).

12. Taula Batez besteko ordu kopurua parte hartzaileko, Autonomia Erkidegoka arabera, 2015-2017

Ordu kopurua/ Parte hartzaile kopurua

	2015	2016	2017
Guztizko batez bestekoa	22,2	17,1	15,9
EAE	21,2	17,3	16,7
Extremadura	31,4	21,0	21,8
Asturias	26,0	19,6	19,3
Kantabria	24,5	19,1	18,7
Andaluzia	26,6	19,5	18,0
Gaztela-Mantxa	25,2	19,1	18,0
Gaztela eta Leon	24,6	18,5	17,4
Galizia	25,7	18,4	17,4
Aragoi	21,7	17,7	16,7
Nafarroa	20,6	16,3	15,4
Madrilgo Erkidegoa	21,0	16,6	15,2
Errioxa	21,0	15,4	15,1
Valentziako Erkidegoa	21,3	16,6	14,8
Katalunia	18,9	15,3	14,5
Balearrak	20,9	15,7	14,5
Kanariak	19,2	15,3	14,4
Murtziako Eskualdea	22,5	15,8	14,2

Iturria: Fundae

Horrela, Extremadura, Asturias, Kantabria, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa bezalako erkidegoetako (batez besteko) prestakuntza-orduen datuak estatu mailako eta EAEko datua gainditzen du. Aitzitik, Nafarroan (15,4), Madrilen (15,2) eta Katalunian (14,5) EAEko datua baino emaitza txikiagoak ematen dituzte.

EAEko parte hartzaileen estaldura-tasak estatuko batez bestekoa gainditzen du

Parte-hartzaileen estaldura-tasak, pertsona parte-hartzaileen eta EParen araberako soldatapeko enpleguaren arteko zatidura bezala definitua, erakusten du EAEn kasuan %30,9koa dela, estatu mailako media gainditzen duen portzentaia (32,6%).

Prestakuntza bonifikatuan parte-hartze tasa handiagoa da Madrilen (%40,5), Nafarroan (%37,7) eta Katalunian (%34,3) eta gainerako autonomia erkidegoetan era nabarmenean egiten du behera⁴.

13. Taula Parte-hartzaileen estaldura-tasa, autonomia erkidegoen arteko alderaketa, 2014-2016

	Parte hartzaileen estaldura tasa (%)		
	2014	2015	2016
Guztira Estatua	28,9	30,0	30,9
EAE	29,2	33,1	32,6
Madrilgo Erkidegoa	36,2	36,7	40,5
Nafarroa	29,3	33,1	37,7
Katalunia	30,3	32,9	34,3
Asturias	28,7	30,4	31,7
Aragoi	27,8	28,8	29,7
Galizia	29,3	29,9	29,3
Gaztela eta Leon	29,3	29,0	28,8
Kantabria	25,2	28,3	27,6
Valentziako Erkidegoa	26,9	27,4	26,8
Andaluzia	26,0	26,5	26,2
Errioxa	24,9	23,2	26,0
Murtziako Eskualdea	26,3	28,5	25,7
Gaztela-Mantxa	24,0	25,8	25,5
Balearrak	23,4	26,6	25,4
Kanariak	23,7	25,8	24,2
Extremadura	21,8	20,4	21,9

Iturria: Fundae

⁴Hala ere, Extremadurak, Andaluziak edo Gaztela eta Leonek batez beste prestakuntza ordu gehiago zuten. Hau da, pertsona gutxiagok hartzen dute baina arduraldi gehiagorekin (orduetan).



Izenburua:	Gipuzkoako pertsonen eta enpresen parte-hartzea prestakuntza bonifikatuan 60. dokumentua, 2018ko ekaina
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
Lantzea	IKEI, research & consultancy S.A.